

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**65/2018 Foru Agindua, 2018ko otsailaren 27koa, onartzekoa abenduaren 29ko 371/2017 Foru Aginduak, Bernedoko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 9. aldaketaren espedientea zenbait baldintzarekin onartu zuenak, ezarritako baldintzak**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Abenduaren 29ko 317/2017 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko Bernedoko udal planeamenduaren arau subsidiarioen 9. aldaketaren espedientea, zenbait baldintzarekin.

Bigarrena. 371/2017 Foru Aginduak berak, kontuan hartuz aipatutako baldintzak ez zirela funtsezkoak, ezarri zuen ezen, behin zuzendutakoan, aurkez zekiola espedientea Foru Aldundiari, berriro ere jendaurrean jartzeko izapidea bete beharrik gabe, behin betiko onartzearen, bete beharrekotasuna adieraztearen eta zegozkion eginbideak egin eta argitaratzearen.

Hirugarrena. 2018ko otsailaren 20an, Foru Aldundiaren erregistroan sartu zen espedientearen testu bategina.

#### OINARRIAK

Behin dokumentazio aurkeztua azterturik, egiaztatu zen zuzendu zirela lehengo Foru Agindu horretan adierazitako alderdiak.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren abenduaren 29ko 371/2017 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzearren, behin betiko onartu zen Bernedoko arau subsidiarioen 9. aldaketa puntualaren espedientea.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko otsailaren 27a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**

BERNEDOKO UDALERRIKO ARAU SUBSIDIARIOETAN, IDAZKETA BERRIA  
EMATEA 141., 62., 73. ETA 78. ARTIKULUEI, 141. ARTIKULUAN SARTUTA  
DAGOEN BERNEDO BHL-7 UNITATEAREN FITXA EZABATZEA ETA 13. FITXA  
SORTZEA, HIRI LURZORUAREN KUDEAKETA: BERNEDO IZENEKOA

**141. artikulua. Hiri lurzorua**

Bete egin beharko dira Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuak errepide eta bideetaraino ezarritako distantziak.

Bai urbanizazioek bai eraikinek bete egin beharko dute Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 4ko 20/1997 Legea, irisgarritasuna sustatzekoa, eta 68/2000 Dekretua ere bai, apirilaren 11koa, HIRI INGURUNE, ESPAZIO PUBLIKO, ERAIKIN ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO SISTEMETAKO IRISGARRITASUN BALDINTZEI buruzkoa.

a) Bizitegi zonak.

– BHL-1 zona: Bernedoko eta Markinezko herrigune historikoak hartzen ditu.

– BHL-2 zona: herri hauetako erdiguneetako bizitegietarako hiri lurzorua hartzen ditu: Angostina, Arluzea, Navarrete, Kinta, Urarte, Urturi eta Villafría, zeintzuetako eraikuntza elkarri atxikia eta tradizionala baita.

– BHL-3 zona: herri hauetako bizitegietarako hiri lurzorua hartzen ditu: Angostina, Arluzea, Bernedo, Markinez, Navarrete, Okina, Kinta, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturi, zeintzuetako eraikuntza bakartua eta tradizionala baita.

– BHL-4 zona: aldirietako hiri lurzorua hartzen du, eraikuntza berri bakartuarekikoa, herri hauetako: Angostina, Arluzea, Bernedo, Markinez, Navarrete, Okina, Kinta, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturi.

– BHL-5 zona: Urarteko herrian sortutako hiri lurzorua hartzen du, bigarren bizitegietarako eraikuntza bakartuarekikoa.

– BHL-6 Zona: lurzati zehatz eta oso jakin batzuk hartzen ditu, Bernedoko herrigunekoak, bereizgarritzat dutenak eraikin bakartu alturako eta etxebizitza familiabakarrarekikoa edukitzea.

b) Industriako erabilera.

– IHL-1 zona: Industriadako hiri lurzorua hartzen du, Bernedoko herrian dagoena.

– IHL-2 zona: Industriadako hiri lurzorua hartzen, Bernedoko herriaren ipar-sortaldean dagoena.

– IHL-3 zona: Industriadako hiri lurzorua hartzen du, Bernedoko herrian dagoena.

c) Sistema orokorrak.

– Bide komunikazioez: Arabako lurralde historikoko landabideen erregistroan inskribatutako bide eta errepideen jabari eta erabilera publikoko zonek osatzen dute, eta honela sailkatzen dira: lehentasunezko sarea, oinarritzko sarea, eskualde bideen sarea, tokiko bideen sarea eta auzo bideen sarea.

– Espazio libreez, biztanleko 5 m<sup>2</sup>-ko estandarra betetzeko, Lurzoruaren Legean ezarritakoaren arabera: hiri parke publikoak, eta kirol parkeak, kultur parkeak, jolas parkeak eta abar.

– Komunitate ekipamenduez: Administrazioak: Bernedoko Udala. Merkataritzakoa, kulturakoa eta irakaskuntzakoa, osasun eta gizarte laguntzazkoa, kirolekoa: Urturiko golf zelaia. Ikuskizun eta jolasezkoak: Okongo atsedengunea. Erlizozkoa. Babes eta segurtasunezkoak: Berroziko gunea. Hilerriak. Hotelak.

– Oinarritzko azpiegiturak: ur hornidura, isurkien saneamendua, energia elektrikoaren hornidura, gas hornidura, oliobideak eta gizarte komunikazioa.

## d) Tokiko sistemak

Hiri lurzorua eremu guztirako ezartzen da ur ibilgu eta multzoen babes eremu bat, espazio libreen-berdegunearen izaera izango duena, eta ur ibilgu eta multzoen ertzetako zerrendek zedarritua, Eusko Jaurlaritzaren plan sektorialaren arabera.

Ezabatu egiten da 7-BHL zonaren fitxa (unitate fitxak-Bernedo), ezabatu egin baitzen zona gisa 141. artikulutik.

**62. artikulua. Nola banatzen den lurzorua, kalifikazioaren arabera**

1. Kalifikazio orokorrak banatu egiten du lurraldea zona eta areatan, eta erabilera orokorrak eta erabilera horietako bakoitzaren intentsitatea esleitzen dizkie bakoitzari, eta haien araubidea ezartzen, orokorki, lurzoru mota guztietarako.

Kalifikazio orokorra osatzen da HPAREN 25. artikuluan definitzen den lurraldearen egitura orokor eta organikoaren funtsezko osagaiekin eta araudi horren 36.a) artikuluan agintzen diren lurzoru urbanizaezinaren areen zedarriztapenarekin.

Zona hauekin osatzen da:

## a) Irabazpidezko aprobetxamenduko zonak:

- Bizitegizkoak.
- Industriadakoak.
- Hirugarre sektorezkoak.

## b) Sistema orokorrak:

Bide komunikazioak:

Arabako lurrale historikoko landabideen erregistroan inskribatutako bide eta errepideen jabari eta erabilera publikoko zonek osatzen dute, eta honela sailkatzen dira:

- Lehentasunezko sarea.
- Oinarrizko sarea.
- Eskualdeko bideen sarea.
- Tokiko bideen sarea.
- Auzo bideen sarea.

Espazio libreak:

- Parke eta lorategi publikoak.
- Hiri parke publikoak, eta kirol parkeak, kultur parkeak, jolas parkeak eta abar.

Komunitate ekipamenduz:

- Komunitate ekipamendu generikoa.
- Administrazioak.
- Merkataritzakoa.
- Kultura eta irakaskuntzakoa.
- Osasunakoa.
- Gizarte laguntzakoa.
- Kirolekoa.
- Ikuskizun eta jolasetakoa.

- Erljiokoa.
- Babes eta segurtasuneko.
- Hilerriak.
- Hiri zerbitzuak.

Oinarrizko azpiegiturak:

- Ur hornidura.
- Isurkarien saneamendua.
- Energia elektrikoaren hornidura.
- Gas hornidura.
- Oliobideak.
- Komunikazio soziala.

c) Lurzoru urbanizaezinezko zonak.

2. Kalifikazio xehakatuak determinatzen du nola esleitu behar diren erabilera zehatzak, zona bakoitzari dagozkionak, definituz zeintzuk diren baimenduak lurzati bakoitzean eta xeheki arautuz erabilera horiek eraikuntza ordenantza espezifikoaren bidez.

Kalifikazio xehatua dute berezko funtzio honako hauek: zuzeneko erakingintzako hiri lurzorurako arauak, lurzoru urbanizagarrirako garapeneko planeamenduak eta besteren gain utzitako planeamenduko hiri lurzoruko aretarako garapeneko planeamenduak, hargatik eragotzi gabe gainerako lurraldean ere antzeko zehaztapen bat ezartzea planeamenduaren helburuei kasu eginez.

3. Erabilera batzuk eta besteak bat etor daitezten, kontuan hartuz lurraldean erabilera horiek ezartzeko posibilitatea, kalifikazio orokorra eta xehakatu honako irizpide hauen arabera tipifikatzen dira:

a) Berezko erabilera: zona baten kalifikazioari ezaugarria ematen diona da (den kalifikazio orokorra nahiz xehakatu), nagusia izateagatik eta hedatuena izateagatik kontuan hartzen den lurralde area horretan.

b) Erabilera bateragarriak: Berezko erabilerarekin batera ezar daitezkeenak, bietako batek ere galdu gabe bere izaera eta berezko dituen ondorioak.

c) Erabilera debekatuak: Erabilera debekatuak dira arau hauen kalifikazioek edo ordenantzek edo plan partzial edo bereziek galarazten dituztenak, eragotzi egiten dutelako lurralde eremu jakin batean antolamenduaren xedeak gauzatzea.

Erabilera debekatuak dira, orobat, berariaz debekatuak izan ez arren, bateraezinak direnak erabilera baimenduekin, nahiz eta murriztapenak ezarrita eduki intentsitatean edo erabiltzeko moduan.

4. Kalifikazio orokorra lurzoru urbanizaezinaren lurralde egitura orokorraren eta organikoaren eta zonifikatzearen planoan dago jasota.

Lurzoruaren kalifikazio xehakatuak titulu hori daraman planoan definitzen da.

### **73. artikulua. Erabileren sailkapena**

1. Hirigintzako erabilerak sailkatzeko, lurraldean egiten diren jarduketa orokorrak moten arabera ezarri eta antolatu behar dira. Jarduketa horiek mailetan eta azpimailetan xehatzen dira. Maila eta azpimaila horiek, hirigintza antolamenduaren helburuek eskatzen dutenaren arabera erabili beharko dira.

2. Hona hemen aurreneko bi mailen sailkapena eta horietako erabilera bakoitzari dagokion kodea:

1) Lehen sektoreko baliabideak ekoiztea, energia baliabideez bestekoak:

1.1. Nekazaritzakoak.

1.2. Abeltzaintzakoak.

1.3. Basogintzakoak.

2) Industria ekoizpena:

2.1. Industria.

2.2. Artisautza eta artisau lanbideak.

2.3. Konponketa-zerbitzuak.

3) Biltegiak eta handizkako salerosketa:

3.1. Lehen sektoreko baliabideak eta industria baliabideak ekoizteko ustiapenei lotutako biltegiak.

3.2. Handizkako salerosketa.

3.3. Berreskuratze produktuak biltegian gordetzea eta salerostea.

4) Ekipamendua:

4.0. Generikoa.

4.1. Hezkuntzakoak.

4.2. Kulturakoak.

4.3. Jolaserako jarduerak eta ikuskizunak:

4.4. Osasunekoak.

4.4. Laguntzakoak.

4.6. Kirolekoak.

4.7. Erlijiozkoak.

4.8. Administrazioakoak.

4.9. Babesa eta segurtasuna.

4.10. Hiri zerbitzuak.

4.11. Hilerrak.

5) Hirugarren sektorea:

5.1. Bulegoak.

5.2. Merkataritza.

5.3. Ostatua.

5.4. Jolasekoak.

6) Bizitegiak:

6.1. Familia etxebizitza.

6.2. Etxebizitza kolektiboa.

## 7) Gune libreak:

7.1. Hiri azpiko parkea.

7.2. Hiri parkea.

7.3. Lorategiak.

7.4. Oinezkoentzako eremuak.

## 8) Komunikazio bideak eta garraioak:

8.1. Bideak.

8.2. Trenbideak.

8.3. Airekoak.

## 9) Oinarrizko azpiegiturak:

9.1 Zerbitzu sareak eta instalazioak.

9.2 Gizarte komunikazioa.

## 10) Beste erabilera batzuk:

10.1 Apaingarriak.

10.2 Itxiturak eta hesiak.

10.3 Publizitate estatikoa.

10.4. Seinaleztapen elementuak, mugarriak, zedarriak eta abar.

**78. artikulua. Definizioa eta motak**

1. Ekipamenduen erabileratzat hartzen dira gizarteko kide guztien beharrianak asetzeko helburua duten jarduerak, beharrian banakakoak izan nahiz kolektiboak izan.

2. Espazioan xeheaturik nola banatzen diren adierazteko, honako mota hauek bereizko dira:

a) 4.0. Generikoa: udal planeamenduan definitutako ekipamendu erabileretako edozeinetarako edo batzuetarako erabiltzen dena.

b) 4.1. Hezkuntzako: pertsonen adimenezko prestakuntza dakartenak edozein maila arauturen barruko irakaskuntzaren bidez, haurtzaindegien bidez, arautu gabeko irakaskuntzen bidez eta ikerkuntzaren bidez.

c) 4.2. Kulturakoa: ezagutza gorde eta transmititzekoak.

Honako azpi-mota hauek ditu:

4.2.1. Kultura informazioa, museoak, liburutegiak, artxiboak eta abar.

4.2.2. Naturari buruzko erakusketak (zooak, lorategi botanikoak eta abar).

d) 4.3. Jolas eta ikuskizunetakoak: pertsonen onurarako aisia eta jolasa eragitekoak jardueren bitartez, kultura jarduerak dutelarik lehentasuna.

Sailkapeneko hirugarren mailako klase hauetan banatzen dira:

4.3.1. Parte hartzeko jolas jarduerak (feriak, jolas parkeak eta abar).

4.3.2. Jendearen parte hartzerik gabeko jolas jarduerak (ikuskizunak).

e) 4.4. Osasunekoak: mediku laguntza ematekoak eta kirurgia zerbitzukoak, dela anbulatorioan edo dela erietxean.

Bulego profesionaletan egiten direnak multzo honetatik kanpo daude.

f) 4.5. Gizarte laguntzakoak: pertsonen osasunaz besteko laguntza zerbitzuak ematekoak, gizarte zerbitzuen bidez.

g) 4.6. Kirola: Herritarrek kirola egiteko eta gorputza lantzeko instalazioak.

h) 4.7. Erlijioak: era bateko eta besteko elizkizunetarako.

i) 4.8. Administrazioak: organo publikoen administrazio jarduerak, nor bere eskumenen arabera eman beharreko zerbitzu batzuetarako eta besteetarako.

j) 4.9. Herritarren babesa eta segurtasuna: estatuaren defentsarako, ordena publikorako eta herritarren babeserako jarduerak.

k) 4.10. Hiri zerbitzuak: hiri zerbitzu publikoen hirigintzako zuzkidurazko beharrezko erantzuteko jarduerak (kotxe toki, hiltegi, azoka eta abar).

l) 4.11. Hilerriak: pertsona eta animalia hilak lurperatzeko edo erretzeko jarduerak.

3. Naturari buruzko erakusketak eta jendearen parte hartzeko jolas jarduerak egiteko kultur ekipamendurako eremu publikoak (azokak, jolas parkeak) espazio libreen sistema orokorrekoak izango dira.

## HIRI LURZORUA KUDEATZEKO FITXAK: BERNEDO. FITXA ZK.: 13

FITXA ZK.:	13
LURZATI MOTA	Hutsik Hirigintzak finkatu gabea
AZALERA	34.096,76 m <sup>2</sup> s
ERABILERA BAIMENDUA	Ekipamendu publiko orokorra (GE-G) Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak (GLB)
GEHIENENKO ERAIKIGARRITASUNA (lurzati gordinari aplikatuta)	Ekipamendu generiko publikoa (EGP): BERNEDOKO UNITATE FITXEN ARABERA: ZUZKIDURA LURZORUA- ZD Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak (GLB): BERNEDOKO UNITATE FITXEN 82. artikulua. ERABILERA ETA JABARI PUBLIKOKO LURZORUA
JARDUKETA SISTEMA	—
EGIKARITZEA	HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA. BEPB-1
BAIMENDUTAKO ESKU-HARTZEAK:	Ekipamendu generiko publikoa (EGP): BERNEDOKO UNITATE FITXEN ARABERA: ZUZKIDURA LURZORUA- ZD Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak (GLB): BERNEDOKO UNITATE FITXEN 82. artikulua. ERABILERA ETA JABARI PUBLIKOKO LURZORUA
HIRIGINTZA PARAMETROAK	Oro har: HIRIGINTZA ARAUDIA Zehazki: — Ekipamendu generiko publikoa (EGP): BERNEDOKO UNITATE FITXEN ARABERA: ZUZKIDURA LURZORUA- ZD — Jabari eta erabilera publikoko espazio libreak (GLB): BERNEDOKO UNITATE FITXEN 82. artikulua. ERABILERA ETA JABARI PUBLIKOKO LURZORUA
NAHITAEZKO LAGAPENAK	—
URBANIZAZIO KARGAK: -	
<p><b>OHARRAK:</b>  <b>GE-G eremuari dagokionez:</b>  — Edozein lur mugimendu, urbanizazio edo eraikigintza gauzatzen dela ere Bernedoko EGP eremuan, berretsita egon beharko da xehetasunezko azterlan geotekniko baten bidez eta lurzoruaren ahalmenaren analisi baten bidez, kontuan hartuz eremurako zer erabilera determinatuko diren azkenik.  — Eraikigintzako erabilerak lurzati bako bako beheragoko kotetan egikaritu beharko dira, eta instalazioen eta eraikinen gehieneko alturak integratu egin beharko dira Bernedoko herriguneak eta Toloño mendilerroak eratzten duten inguruan.</p> <p><b>GEB eremuari dagokionez:</b>  — Debehatuta dago erabat Arabako eraikigintzako edozein prozesu hegoaldeko mendilerroetako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) eta hegaziten babes bereziko eremuaren (HBBE) zona periferikoaren eragin pean (ES2110018) dagoen eremuan; horiek urtarrilaren 26ko 10/2016 Dekretuaren bidez izendatu ziren, eta espazio hori zuhaitz eta sastraka espezie autoktonoen bidez egonkortzeko eta berlandareztatzeko neurriak ezartzeko izendatu zen. Alde horretatik, egonkortze eta berlandareztatzeko jardun horiek Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak onartutako "egonkortze, ingurumen leheneratze eta paisaia integratuzko proiektu" batean jaso behar dira.  — Edozein lur mugimendu, urbanizazio edo eraikigintza egiten dela ere Bernedoko GE G eremuan, berretsita egon beharko da xehetasunezko azterlan geotekniko baten bidez eta lurzoruaren ahalmenaren analisi baten bidez, kontuan hartuz eremurako zer erabilera determinatuko diren azkenik.</p> <p><b>Foru errepedearek dakarrien eraginari dagokionez:</b>  — Lursailaren egonkortasuna ziurtatu beharko da, eta ezingo da eraman errestanda lurrik errepedearen arekara; hala, jabari publikoko zonatik ezponda bat utzi beharko da, 3H/1Vkoa, lurrik lerratu edo finkatu ez dadin.  — Errepedearen arekaren eta eraikinaren lerroaren artean dagoen lursail guztian, berdegunearen erabilera baizik ez da onartuko, eta ez da izano zilegi bestelako ezein jarduerak.</p> <p><b>Saneamendu sareari dagokionez:</b>  — Garapen planeamenduak justifikatu beharko du eragiten diren isurketak behar bezala tratatzen direla arazketa sistema autonomo baten bitartez edo lehendik zegoen arazketa sistemari lotuz, isurketa egiteko aginduzko baimena barne.</p>	